


...eta **kitto!**

751 zkia. 2011-11-11

ASTEKARIA

TOKIKOM

Salba zaitzakeen laguna



Clinica Oftalmologica
RECALDE
Oftalmologia Klinika

PRESBIZIAREN KIRURGIA

Plaza Barria, 2 - 2º - Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Ekarri zure hortzeri zaharra

1.000€

eta 1.000 eurotarainoko deskontua egingo dizugu*

IRAZABAL
clínica dental



* Hortz-inplanteekin egindako tratamenduentzat. Promozioak 2011ko maiatzaren 1era arteko balioa du. EZIN ZAIE beste promozioei GEHITU.

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.
Tel. 943 208552

...eta kitto!-ren
itzulpen
zerbitzua



ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelera,
gaztelera,
euskaratik
eta ingelesetik
euskara.

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.



- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.

elkartea@etakitto.com



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Valeriano De la Calle

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHTA:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

HAMABI-HAMABIXAK.- Hamabiak puntuan. "Hamabi-hamabixetan agertu zan, huts egin barik".

HAMAIIKA.- Asko. "Hamaika gizon badira galduta, surra baiño harutzago ikusten ez dabelako".

HAMAIIKATXO BAT.- Hamaika, asko. "Hamaikatxo bat, zahar eta gazte, eder haren ondorian baziran".

ESKUTITZAK

ZEUEEN ERRETRATUAK EUSKERIAREN ALDE

EHEk manifestaziño nazionala deitu dau datorren otsaillaren 12rako, Donostian. "Sasi guztien gaiñetik, euskaldun eta burujabe" izan nahi dogula aldarrikatuko dogu.

Eibarko EHEn, manifestaziñuari babes emoteko, euskaltzale guztien erretratuak bildu nahi ditugu. Zelan egingo dogun? Barixaku honetan eta datorren asteburuan kalia ibilliko gara argazki kamariarekin. Argazki txikiz osatutako mosaikua sortuko dogu, eibartarrok be manifestaziñuarekin bat

egiten dogula adierazteko. Urten kalera erretraturako prest!!

Nahixago badozue, Facebook, Twitter, e-postaz... be batuko dittugu erretratuak:
eibar@euskalherrianeuskaraz.org
www.facebook.com/eibarkoeuskalherrianeuskaraz.php
www.euskalherrianeuskaraz.org

Kendu mozorrua eta erakutsi aurpegia: euskariaren alde!

EIBARKO EHE

asteko

HEMEROTEKA

esaldia

"Euskara ezin da teknikarien eskuetan bakarrik laga, ezta euskalgintzaren esku soilik ere. Herri euskaldunetan gertatzen ari da dagoeneko: euskara batzordeak eta beste egiturak motelduta daude, baina herritar asko ari da lan hori egiten, euskalgintzako kide denik ere sentitu gabe. Euskararen aldeko gauzak egin beharrean, gauzak euskaraz egin behar ditugu."

(Dabid Anaut, euskara teknikaria)

"Gaur egun 8.700.000 pentsionista daude Espainian; 2025ean 11 milioitik gora izango ditugu eta 2050ean 17 milioiak gaindituko ditugu. Hori guztiori urte gehien hartzen duen populazioa delako gurea, Japoniaren atzetik. Eta gaur egun dugun jubilaziorako adina 1919an ipini zela ikusita, 90 urte pasatuta normala da gauzak bizi dugun sasoiran egokitu behar izatea"


(Ikberne Meso, Gizarte-Segurantzako letratu)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

LAGUN TALDEA

Urtarrilaren 22xan eta 29xan Lagun Taldeak eskindu zittuan ikuskizunen ostian egindako zozketetan 961 eta 5958 zenbakixak jaso dabe sarixa (otar bana, honezkero hartu dittue irabazliak). Bide batez, Lagun Taldeari zorianak emon detseneri zein bestelako laguntasuna eskindu dabeneri eskerrak emon nahi detsez taldeko kidiak.

1.800 LANGABETU

Urtarrileko datueri begiratuta, Debabarrenian %5 egin dau gora langabetuen kopuruak: iazko urtia amaitzian lan barik eguazen 3.203 lagunak urtarrilaren 31rako 3.297 langabetu izatera pasau ziran. Horretatik 1.801 eibartarrak dira, aurreko hillian baiño ehun bat gehixago. Eta horren artian 921 andrazkuak dira eta 880 gizonetzkuak.

MAHAIA INGURUA

Arnaldo Askatu Ekimenak antolatuta, "...eta orain zer?" izenburuko mahai ingurua egingo da Elgoibarko Herriko Antzokian, otsailaren 24an 19.00etatik aurrera. Mahaixan Mariano Ferrer (kazetarixa), Jone Goirizelaia (Otegiren abogaua), Xabier Arzallus (EBBko lehendakari ohia), Martxelo Otamendi (Berriako zuzendarixa) eta Hasier Etxeberria (moderadoria) egongo dira.

Suhiltzaillien premiñan

ASTE HONETAN NORMAILIAN BAIÑO BIHAR HAUNDIXAGUA EUKI DABE SUHILTZAILLIAK GURIAN. Martitzen eguardixan sua ixotu zan San Agustin kalian, 2-4 zenbakixetan daguazen buleguetako batian. Su txikixa izan arren, suhiltzailliak 3 kamioi eruan zittuen eta, biharrian jardun eben bittartian, aittatutako kalian trafikua eten bihar izan eben. Egunion bertan udaltzainguak argittu ebanari jarraituta, lokaletako batian, paperontzi batek su hartu eta hortik zabaltzen hasi zan. Suhiltzailliak bizkor ibilli ziran eta, zorionez, ez zan ezer larri-



Sute larririk egon ez arren, hainbatetan irten dira suhiltzailliak kalera. / SILBIA HERNANDEZ

rik gertatu, baiña, halanda be, ke ugari sortu zan lokal barruan. Bixamonian, barriz, goizeko 08.00ak jota udaltzañiak abisua jaso eben, Urkizu pasealekuko 9xan dagan lokal batian galdararekin arazuak zittuelako. Suhiltzailliak bertara jua eta, galdararekin arazo-

ren bat eguala egiaztatuta, argindarra eta gasa eten eben, badaezpada. Eta egunion bertan, baiña arratsaldian, San Kristobalen, etxe batian gas usaiñ haundixa eguala-eta, bertara jua ziran etxian iñor ez egualako: gasa zabalik lagata eguan.

Bixarko manifestaziñorako autobusa

"SASI GUZTIEN GAINETIK, EUSKALDUN ETA BURUJABE!" LELUARI JARRAITUTA BIXAR DONOSTIAN EGINGO DAN mobilizaziñuan eta horren ostian Txillardegiri eskinduko jakon omenaldixan parte hartu nahi dabeneñdako autobusa antolatu dabe Eibarko Euskal Herrian Euskaraz-ekua:

15.30xetan urtengo da Ego Gaiñetik eta bertan jua nahi dabenañk aldeñ aurretik izena emon biharñko dau Monteka edo Depor tabernetan edo eibar@euskalherrianeuskaraz.org helbidera mezua idatzitta. Bide batez, Eibarko EHE-ekuañ eskerrak emon nahi detsez manifestuarekin bat egin dabeneri eta baitta aldamenian ikusi zeinkien mosaikua osatzeko argazkixak bialdu detseñeri be.



JAVIER ZUBIAURRE EZENARRO

(2011ko otsailaren 2an hil zen, 80 urterekin)

*Senidekoen izenean,
ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.*



*Apirilak 9
gorde eguna
alkarrekin
pasatzeko!*

...eta kitto!

**Bazkide jaixa
2011**

BABESLEA



asteko

55

datua

egun itxoin bihar dira Mendaroko Ospitalian operaziñuetarako, iñun baiño gehixago, Nagusixen Kontseilluak salatzen dabenez. Zaiñ egon biharreko denporia be igo da (3 egun gehixago), gaixo kopurua (841) eta proba osagarrietarako itxoin biharrekua (batazbeste 23'44 egun, iaz baiño 11'85e egun gehixago) bezala.

AURREKO ASTIAN AURKEZTU EBAN HAMAİKABATEK HURRENGO HAUTESKUNDIETARAKO euren zerrendaburua izango dana: Mertxe Garate. Aurkezpen ekitaldixan Jose Antonio Mutiloa Eibarko ejetubako arduraduna, Maite Etxaniz Gizarte Politikarako diputua eta Martin Beramendi Gipuzkoako presidentia be egon ziran, alderdiko beste ordezkari askorekin batera. Legealdi honetan Industria eta Merkataritza batzordiarene arduraduna dan Garatek, alderdixak erakutsi daberen konfidantzia eskertu eta jarraixan, *“Hamaikabatek personetan oiñarritutako dakan herri maillako proiektua nabarmendu nahi izan eban”*.

Horrekin batera, ardatzetako batzuk aurreratzeko aprobe txau eban ekitaldixa: *“Krisi ekonomikuari aurre egittia eta gizarte arloko politika sendotzia,*



Mutiloa, Etxaniz eta Beramendik lagunduta aurkeztu zeben Mertxe Garate. Ekitaldixa aurreko barixakuan egiñ eben, Plemo aretuan. / SILBIA HERNANDEZ

guzti hori parte-hartzia bultzatuta eta akordixuetara aillegatzeko konpromisuarekin”. Zentzu horretan, Hamaikabatek udalian egindako biharra *“erabakigarria”* izan dala aittatu eban, *“industria, merkataritza eta ingurugiruari lotutako arluak gidatuta eta Eibarrerako oso inportantiak diran proiektuak aurrera etartzeko asmuari jarraituta akordixo zabalak bultzatuta”*. Adibide modu-

ra, Tekniker IK4k garatzen diharduan polo teknologikua eta merkataritza lan bitartekaritza aittatu zittuan. Hauteskundietarako programia osatzeko, erakunde, alkarte eta hiritarren proposamenak jaso nahi dituela esan eban eta, heburu horri jarraituta, Eibarko H1!ek www.eibarh1.wordpress.com bloga ipiñi dau martxan, nahi daberen bertan bere ideia eta proposamenak egitteko.

Bixar amaittuko da Eibar Factoring

EGUENAZ GEROZTIK MARTXAN DAGUAN "EIBAR FACTORING" EDO BEHERAPENEN AZOKAK BIXAR ESAN-GO DESKU AGUR, baiña oindiok be bertan eskintzen ditten beherapen eta prezio be rezixak aprobe txatzeko aukeria badaukagu, gaur illuntzeko 20.00ak arte eta bixar, barriz, egun osuan, 10.00etan hasi eta 20.00ak bittartian. Torbio Etxebarria kalia 32 dendak dihardu parte hartzen, bestiak beste jantzixak, barruko arropak, oiñetakuak eta etxerako

produktuak prezio berezixan eskintzen.

Bestalde, eta herriko ostalaritza eta merkataritza indartzeko helburuari jarraituta, Eibar Merkataritza Gune Irekia alkartian duguazenenak Eibarko 30 bat tabernetan pintxua duan hartzeko txartelak banatzen dihardue bezerueri. 5.000 bono banatzeko asmua dake eta hillaren 14tik 18ra erdialdeko hainbat tabernatan erabiltzeko aukeria eukiko dau jendiak; hillaren 21etik 25era, barriz, Urkizu aldeko tabernetan hartuko dittue bonuak.



35 proiektu T. Etxebarria sarixetan

AZKEN URTIOTAKO DATUERI BEGIRATUTA, SEKULA BAIÑO PROIEKTO GEHIXAGO JASO DITTUE AURTENGO TORBIO ETXEBARRIA LEHIAKETAKO antolatzailliak, 35 hain zuzen be: horretatik 18 “Enpresa Ideiak” atalaren barruan lehiatuko dira eta beste 17, barriz, “Sormen eta berrikuntza teknologikoa enpresan” atalaren barruan. BIC-Gipuzkoa Berrilane eta Udalak sortutako sarixen antolatzailliak diñuenez, *“presentau ditten proiektuak sektore diferentiekien lotutakuak dira eta, bestiak beste IKT, ingurune, energixa barriztagarrixak, biozientziak, elektronika eta beste hainbat esparru ikutzen dittue”*. Lehelengo begiratu batian, gaiñera, *“oso proposamen interesgarrixak”* duguazela azpimarratu dabe. Proiektuen jatorrixari begiratuta, 22 Gipuzkoakuak dira, 11 Bizkaikuak eta 2 Arabakuak. Epaimahaiak proiektu eta ideiak ebaluau eta balorau ondoren, martxuan egittekoa dan billeran hartuko dau erabagixa, eta finalista geratu diran lanak zeintzuk diran, barriz, sari-banaketa ekitaldixa baiño egun batzuk lehenago emongo dabe aditzera, apirilla aldera.



Barrittasun moduan aurten kalia egin da neguko Factoring-a. / ARTXIBOA



Bolinguako ingurunia. / ARTXIBOA

EA koherentzia eske

GAUZA BAT ESAN ETA BERTIA EGIÑ IZANA AURPEGIRATU DETSE EIBARKO EAK BAI UDALARI eta baita Iñaki Arriola Garraio eta Etxebizitza sailburu eta alkate ohiari be. Iazko oktubrian sinatutako hitzarmena bertan behera laga eta Bolingua eta Egazelaiko babes ofizialeko etxebizitzaren promozioarekin aurrera ez segitzea eskatzen detse, herrixan

geratzen diran berdegune gutxi horri eusteko gomendatziarekin batera. *“Herri barruko eraikiñak zaharberritu eta horretxek etxebizitza sozialen promozioarako erabiltzia”* proposatzen detse EA-kuak. Bide batez, plan estrategikuen gaineko kanpo konsultoriarik ez egiteko eta horretan 40.000 euro ez gastatzeko eskatzen detse alkatiari.



Milla ikaslek dihardue hizkuntzak ikasten Eibarko HEO-n.

Eibarko HEOk 20 urte

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK EIBARREN ATIAK ZABALDU ZITTUALA 20 URTE BETEKO DIRA KURSO HONETAN eta, horrekin batera, aurtan Hizkuntza Eskolak sortu zirela 100. urteurrena be betetzen da. Estatu mailan zabaldutako lehengo eskola Madrilgo Jesús Maestro izenekua izan zan. EAEn, barriz, Bilboko Hizkuntza Eskola Ofiziala izan zan sortzen lehengua, 1969xan. Eibarkua EAEko laugarrena izan zan, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Getxokuaren ondotik. Lehengo egoitza Unibersidade Laboralian euki eban eta hiru hizkuntza (euskara, frantsesa eta ingelesa) ikasteko aukeria eskintzen eban. Hogei urte hauetan, urtero batzeste 750 ikasle izan ditte Eibarko HEOk. Oin momentuan, 1.000 bat ikasle ditte eta alemaniera be ikasi leike.

anzorik anzo



Plan barrira Errebalerako?

Errebal Plataformak idatziz igorritakuen arabera, “2010eko udako oporren aurretik, tarteka-marteka Errebalgo proiektu barrirako Betebiharrekuen Pliegua presentatzen dugu behin baino gehixagotan konfirmatzen jua dira: oporren aurretik, irailaren amaieran, urriaren amaieran, Gabonak baino lehen... Baiña, Gabonak arte izandako martxan etenaldixa emon eta bada denporia horren gainian ezer aittatzen ez dabela”. Oindiok pliego hori ez aurkezteko arrazoia zein dan galdetzen dabe: *“Urte bi alperrik galdu dogu eta ointxe beste urte eta erdi daroiagu Udalak herritarren parte-hartzerako bidia zabaldutako benetan duguaren premiñeri erantzuteko alternatibaren zain”.* 2009ko irailian alkatiak agindutakua bete eta Alkatetzatik billeria egiteko deia oindiok jaso ez dabela salatziarekin batera, 2008ko apirillian Udalarik alkarlanian jarduteko egingutako eskintzak erantzunik ez dabela euki diñue. Atzo bertan Hirigintza sailak billeria egiñ eban Errebalerako Plan Berezi barrira debatiaren ardatza zala, eta gaur goizian bertan alkatiak billeran erabagittakuen gaineko azalpenak emoteko prentsaurrekua eguan deittuta.


eibar kaleka

Murrategi kalia

Eibarko XIV-XVI. gizaldixetako toponimian jasota dator Murrategi zubixaren gaineko aittamena: Unzueta famelixaren errotaik Azittaingo ermittaraiño, kanala salbatzeko ezinbestekua ei zan han inguruko kaliari izena emoten detsan zubixa.

Pegora kopurua: 3.

Erroldatutakoak: 63




Zelan ikusten dozu mendiko erreskatiak kobratzen hastia?

Abusuak izan dirala-eta, badirudi mendixan eta halaketan egiten diran erreskatiak kobratzen hasi bihar dirala, batez be tartian neglijentzia baldin badago eta federatu gabeko jendia. Batzuren ardurarik gabeko portaerik bestienan be eragiña dakalako eta arriskuan jartzen dabelako laguntzera doiazenen bitzta.



OLAIA SUÁREZ
32 urte
bihargiña

Mendixan zagozela zeozer pasatu ezker, danok dakagu laguntza jaso zeko eskubidia, baiña ikusi egin biharko genduan zergaittik pasau dan istripua. Neglijentzia izan bada, igual kobrau egin biharko litzake.



ERNESTO IGLESIAS
60 urte
bihargiña

Onena federatzia edo asegurotxo bat ordaintzia izango litzake; merkia da gaiñera. Izan be, badago jendia arduragabekeriaz jokatzen dabena eta, euron bitzta arriskuan ipintiaz gaiñera, bestienak be arriskuan ipintzen dabena. Halako kasuetan ondo ikusiko neuke kobratzia.

LIDIA POUSA
32 urte
flamenko irakaslia

Egoeraren arabera kobrau bihar ko litzake; zure erruarengaittik izan bada, hartu biharreko neurriak hartu ez badozuz, ba igual kobrau egin biharko litzake. Baiña istripua izan bada, bihotzekua emon edo orkatillia okertu jatzula, ba ez neuke ondo ikusiko kobratzia.



ANTON BERMÚDEZ
63 urte
jubilaua

Ez dot ondo ikusten oin danori kobratzen hastia, danontzako gauza bera egittia. Kasuak eta egoerak ikusi bihar dira: norberaren erruz izan bada, neglijentzia badago, ez jatan txarto begitanduko. Dana dala, federatzia merkia da: aseguro txikixa izatia-rekin nahikua izango litzake.



**EIBARKO
HIZKUNTZA ESKOLA
OFIZIALA**

Jardiñeta, 3
20600 Eibar

**EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
2010/2011**

MATRIKULA LIBREA
Otsailaren 11tik martxoaren 4ra

**HIZKUNTZAK: ALEMANA, EUSKARA,
FRANTSESA ETA INGELESA**

Matrikula egin nahi dutenek **Internetez bakarrik** egin ahal izango dute www.eoieuskadi.net orrian.

Argibide gehiago: www.eoieibarheo.net orrian edo **943200618** telefonoan.

EGOITZA NAGUSIA
Bilburieta 20 - beheko eskua

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errausketa larrea
Egoiberran (Signo poligonoan)
- Azirikiz: mita eta aseguro ebaki zerbitzuak
- Korok - Eskelak - Uteurrako eskolak
Euskal Herri osoan ospitaleetan hartzen ditugu
Nazio eta Nazioarteko traxoleak

Mugica Ehorzketa
Ehorzketa larrea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951




Iruki inaugurau zan eguneko irudixa. Asteburuetan lepo beteta egoten da.

Ostalaritza alternatibua

Nunbaiten "lanez lepo" baldin badabilta, hori Sanandres aurretik Ipu-ruako Eroskiren onduan zabal- dutako 'IRUKI' sagardotegixan da. Lokal horrek asteburuetan dakan azeptaziñua ez da edo- zer gauza: "Hillabete eta erdira- ko beteta dakagu; martxora ar- te asteburu guztiak dagoz har- tuta", diñosku **Arrate Hidalgo**. Ikusten da **Vicente Beldak** za- baldutako lokalaren zaiñ egua- la herrixa, inguruan sagardote- girik ez dakagu-eta: gertukue- na, Azpeittiko Añota. Hogeit bat laguneko plantilla daka Irukik, eta "asteburu batzuetan gehi- xago be bai". Kabidia 200 lagu- nentzako da; "halanda be, 180 hartzen dogu gehixen jota". Bestela, "kupelendako tokirik gabe geratzen" dirala-eta, Hi- dalgoren esanetan. Tokixa har- tzerakuan, gaiñera, berak di- ñuanez, "taldiak gero eta haun- dixaguak izaten dira askotan eta horrek arazuak ekartzen dit- tu: igual 20rendako tokixa har- tu eta, handik egun batzuetara, 28 dirala esaten detsue. Jendia gehitzen doia eta ez da erraza izaten". Menua sagardotegikua da, "tipikua", 28 eurotan emo-

ten dabena; badago, baiña, beste aukerarik. "Txuletia eska- tu biharrian, menuan oillaskua edo saiheskixa sartu ezkeru, 20 eurotan urtetzen jatzu. Gaz- tieren artian menu merkia nahiko zabaldua dago". Aste- buruetan giro berezixa badago be, egunero zabaltzen dabe sagardotegixa: eguneko me- nua 12 eurotan dago. Hori bai, astelehen, martitzen eta eguaztenetan gabaz ixten da- be: "Noizbaiten deskantsatze- ko tartia be hartu bihar dogula- ko, batez be asteburuan zer datorkigun jakinda, pilak barrero

kargatzeko". Irukik baditu bes- te bentaja batzuk: "Kiroldexiga, El Corte Inglés... hamen alda- menian izanda, kanpoko jen- diak be bisitatzen gaitu. Gaiñe- ra, doaneko parkiña dake eta horrek, behiñ hona etorritta, la- sai egotera bultzatzen dau jen- dia". "Goizeko ordubixak arte" jendia lasai antzian geratzen da askotan. Talde haundixen- dako "menu koncertauak" be prestatzen dittue: "Kezkakuak datozela, jubilaueen taldiak... Ixa ehun lagunendako mahaixa prestatu bihar izan dogu". Urte- betetziak, despedidak, astebu-




'Pato' Fuentes eta Mikel Romerok lehengaixa eta bezerua zaintzia bihar-biharrezkua ikusten dabe, bide horretan preziauari eutsiz. / SILBIA HERNANDEZ

Hona hamen gure herrixan ostalaritza arluan azken aldixan izan dittugun barrittasunetako batzuk. Muestratxua besterik ez da, jendiak ikusi daixan gero eta aukera haundixaguak dittugula herrixan beste modu batera jan eta edateko. Tabernarixak proposiziñuak egitten deskue eta gero, gure erantzunaren arabera, moldatzen juaten dira eta bezeruari egokitzen. Dana da aberasgarrixa eta probatzia iñoiz ez dago txarto, munduari zabalik egon bihar garalako. Informaziñorako balio badeutsue, on egiñ!

ruetako umiendako menuak... hainbat aukera eskintzen dittu Ipu-ruako sagardotegixak. Arra- tek aurreratzen desku "beste asadore bat" ipiñi bihar dabela, "dana txiki geratzen hasi" ja- kuela-eta. Biharrezkua ikusten dau "makiñarixa egokixenare- kin kontatzia" eta bezeruari bihar dan moduan erantzutia. Kupeletako sagardaua Zapi- aiñekua da, "asko mimatzen eta zaintzen dabe-eta sagardaua; ez dagoz produkziño masibuari emonda". Eta postria be etxe- kua, eurak erosittako "produktu freskuarekin egindakua". Jaixa noiz hartuko daben galdetuta, "abuztu erdiko aste bi izango dittugulakuan nago" diño Arrate Hidalgo.


Untzagako zinia eguan alda- menian zabaldu eben **Oishi** ta- berniak gerturau zeskun Ja- pongo sukaldaritza. Bertako pintxo berezixak segidan izan eban arrakastia eta, produk- tuak ezbaridiñak izan arren, jen-



17 urte daramatza Alberto Tellak `Tximeleta` jatetxian Italiako janari tipikuak eskintzen. / SILBIA HERNANDEZ

diak gustora hartu zittuan **Mikel Romero** eibartarrak, **`Pato` Fuentes** txiletarrak eta **Javier Quintana** algoibartarrak zabaldu-tako lokalien eskintutako produktuak. Gertuago dogu -bakarrik hillabete batzuk pasau dira- **`SUBEROA`** hartu dabenetik lfar-kale kalia. Euren esanetan, *“arraruak garan gurutzia daramagu gaiñian eta ez dago horretarako motiborik. Oishik bai daka linea osatuagoa, baiña Suberoan bezeruari egokitze ahalegiñ haundixa egin dogu”*, diñue Mikelek eta Patok. *“Gure asmua da jendiari euren etxian moduan jaten emotia, ordaintzeko moduko prezian”*. Hori dala-eta, onartzen dabe *“guk menuan ez dogu irabazten, baiña bai zaintzen dogula bezerua”*. Estetikia da desbardiñak bihurtzen dituan faktorieta bat eta baita *“lehengaixa be: horri ezin detsagu bizkarra emon”*. Hasieratik hona aldatzen juan dira, bezeruak beste zeozer eskatzen ebala-eta: *“Halanda be, bagoiaz engañatzen be, modu onian, eh! Japongo salsak ondo baiño hobeto asimilatzeko dau klientiak”*. Produktu arrakastatsuenen artian dake *“txipiroi bipolarra, okeliarekin betetakua”*, Patoren esanetan, eta arduak be asko zaintzen dittue: *“Beste ba-*

tzuren alde egin dogu, Riojetan enkasillau barik. Denominación de origen eta halakuak desagertzen juango diran neurrixan, autore arduak ekartzen saiatzen gara, arrazoizko prezian”. Hor bezeruak be laguntzen dabela diñue, gero eta *“irekixaguak”* bihurtuta *“kaldo barrixen asuntuan”*. Hiru hillabetero aldatzen dittue dakezen hiru kartak, *“beti be sasoiko produktuekin lan egiñez. Probeedorriak lubina basatixa ekartzen badesku, haren alde egingo dogu”*. Degustaziñorako menua 22 eurotan dake eta harro dagoz *“Eibarren bakarrik izatiaz lau laba eta hiru suko sukaldia daken bakarrik garalako”*. Japon eta Euskal Herrixa lotzeko gai dira, *“bixetan asko zaintzen dalako lehengaixa”*. San Balentinerako menua prestau dabe eta, aurrera begira, *“martxotik aurrera ekitaldixen alde egingo”* dabela diñue: *“Musika jardunaldixak, asteburu tematikuak eta halakuak antolatzeke asmua dakagu”*.




Menu afrodisiakua eskintzen dabe Etxola jatetxian.

`ETXOLA`-k jabe barrixa daka hillabete batzuetatik hona. **Nestor Arosak** *“enero kas-karra”* bizi izan dabela diño, *“baiña azken egunotan beste mugimendu bat nabarritu dogu jendiaren artian”*. Febreuaeren 14a datorrela-eta, menu afrodisiakua eskindu dabe datozen asteburu bixetarako: *“11tik 14ra, egun bixak barne, eta 18tik 20ra serbiduko dogu menu hori eta tokixa hartu bihar da aurretik”*. 25 eurotan dago menu hori, %10eko deskontuarentzako tartia eskintzen badabe be. Plateren artian Ukrainatik jaso barri daben kabierra dake: *“Tenperatura bajuko arrautza zerbitzatuko dogu kaviarreakin batera”*, diño Arosak. Bohigas brut nature cava erabiliko dabe menu afrodisiakoko horretan.

Normalian, dana dala, gertuko produktuak erabiltzen dittue: *“Basetxerrikua, Ondarruko arraiña, Baztango okelia... naziño-arteko sukaldaritzaz baztertu barik: Txinako salteaua dogu, Japongo tenpuria eta Marrueko naranjia ahuntz gaztaiarekin”*. Ikusten danez, Afrika, Asia eta Europako produktu arrakastatsuetatik *“zurrukutunera-riño”* esparru zabala eskintzen dabe

`Etxola`-n. Preparaziñorako be teknika ez-bardiñak erabiltzen dittue eta, eskaintzen artian, honakuak doguz: *“Taldientzako menuak dittugu 25 eurotan dana, egungo menua 13tan (etxera eramateko 10 euro) eta bonuak be eskintzen dittu (hamar bazkari 100 eurotan, edo bost 55etan, gaiñera kaduzidade barik)”*. Hasieran janari *“arraruak edo ezezagunak”* izan leikienak be jendiak *“ondo onartzen dittuala”* esaten desku Nestorrek. **Marina Dannylenkok** dihardu berekin lanian, *“sukaldian dittugun beste la-gun birekin batera”*. Sanandresetan jende gaztia izan eben jatetxian eta *“emakumiak be asko etortzen jakuz”*. Domeka gabian ixten dabe bakarrik eta arduetan be alternatibuetara jotzen dabe: *“70 erreferentzia dittugu, New Yorkeko ardotegi batetik desbiatzen deskuenak. Kalidade-prezio harremana egokixa da eta 12 eta 20 euroren artian dogu botellia”*.



`TXIMELETA` ristorante italianuan *“krisixa igartzen”* dala diño **Alberto Tellak**. Hamazazpi urte daroiaz martxan eta San Juan kalekua janari italiarra eskintzen daben jatetxe bakarra da herrixan, Barakaldo kalia eguan **`Vitto`** atiki itxi ebanetik. Alberto Tella jabiak diñue, *“pastia eta pizza da jendiak gehixen demandatzen dabena. Horregaittik dakagu pasta degustaziñua eta, pizzetan be, sei plater fijoetik kanpo, aukerak eskintzen dittugu, bakotxaren gustuaren araberrakuak”*. Azken aldixan, gero eta menu *“begetarianuagua”* eskintzen dabe, *“jendiak hala eskatuta: berduriak gora egin*



Urkizuko dorrietako Bako-Lekun pozik dagoz ardotegixaren funtzionamenduarekin. / SILBIA HERNANDEZ

dau". Eguneko menuak 11 euro eta erdiko prezia daka eta asteburuetako kartia eskintzen dabe. "Zapatuetan etortzen jaku jende gehixen, bai eguerdiz eta baita gabaz be; bezerueri dagokixenez, danetarik badago be, gazte jendia nagusitzen da", diño Tellak. Bezero horien artian badake "bizitza guztikuak dirazenak", baiña batez be eguneko menukuak dira. Eibarko jendiak osatzen dau bisitarixen zatirik haundixena; "halanda be, Soroluzetik, Arrasate-tik... kanpotik be badatoz". Domeketan itxitta dago 'Tximeleta' eta baita astelehen eta martitzen gabetan be. Eta azken aldixan oferta barrixak buzoneatu dittue, tartian "%25eko deskontua plater guztietan zapatu eguerdixetan eta %35ekua astelehenetik barixakura arte etxera eramateko pasta eta pizzetan".

Oscar Morantik eta **Leo** bere semiak Argentinako ikutua emoten detse 'LANÚS' taberniari. Sei urte daroiate taberniarekin, "Eibarren bederatziz egin badittut be" diñosku Oscarrek. Tortilla berezixak eta brotxetak errekonozimendu haundixa lortu dabe bezeruen artian, "gildekina batera"; halanda be, pintxuetan-eta hamengo ohittureri egokittu dira, "guztiz integrata gagozelako: Buztari soziedadekua naiz eta Coliseoko tanborradan be parte hartu neban", diño tabernako jabiak. Halanda be, "Argentinako etxeko enpanadak prestatzen dittugu eta baita herri bereko eta Txileko ardauak eskindu be. Graffina argentinarren artian eta Frontera Txileko 'kalduen' artian gehixen zerbitzatzen dittugunak". Txorizua sagar-



Nestor Arosak sukaldaritza barrixa ekarri nahi izan dau Eibarrera, Iruñan egon eta gero. / SILBIA HERNANDEZ

dauaren erara eta gildak be ospia lortu dabe hainbat "ebentotan tabernia argentinarez betetzia" lortu daben 'Lanús'-en: Mundialian, partidua galduta be, Argentinak irabazi balu moduan ospatu eben herrixan.

Urkizuko dorrietan giro berezixa sortu da azken aldixan 'BACO-LEKU' ardotegixaren inguruan, herriko bigarrena bihurtuz Isasi kaleko Mahats-ondoren atzetik. Setienbrian zabaldu eben "ardauen frankizia moduan funzionatzen" daben ardotegixa, "hamabost egunetik behiñ aldatzen doiana. Horretarako, pantallia dakagu bertan eta hor anunziatzen dira aldatetak", esaten deskue arduradunak. Jendiak tartia hartzen dau modu horretan arda onarekin disfrutatzeke, "inguruan be umiak jolasian ibiltzeke tokixa dake-eta". Hamen "beste espiritu ba-

tekin" poteatzen da: "Ardaua tenperatura egokixan zerbitzatzen da, lasai hartzeke tartia hartuz". Beltza nagusi bada be, "zapatu eta domeka eguerdixetan ez dira gitxi txakoliña eta zurixa eskatzen dabezenak". Villarrica eta Heras Cordón dira nagusi: "Jendiak, gaiñera, euren izenarekin eskatzen deskuenak: Villarrica bi, mesedez". Txanpi pintxuak dastatzeko aukeria be izaten da batzuetan. Azken aldixan 'behetarrik' Urkizu aldian geratzen dira poteatzen eta emoten dau goittik be animatzen dirala jaistera. "Eta konturau gara erdialdetik be jendia honaiño bajatzen dala, bikotiak-eta".

Badagoz kanpoko janarixak eskintzen dittuen beste jatetxe batzuk be herrixan. Holan, **Turkiako** plater tipikuak probatzeko aukeria eskintzen dabe, bai Isasin eta baita Arraguetan be, **Prince döner KEBAK**-ak. Famelixa berekuak dira (aita Isasin, semia Arraguetan) eta, esan deskuenez, kebabak, d'rüm-ak eta lahmacun-ak dira gehixen eskatzen diranak. Halakuetan, dana dala, bertan jan baiño gehixago, "etxera eramateke eskatzen dau jendiak". Oillasko eta bildots okelia da gehixen erabiltzen dabena.

TXINAtarrak be jatetxe bi dake gaur egun Eibarren: Calbetón kalia bat eta Urkizun bestia. Azken honetan, 'Dragón de Oro' jatetxian be, nagusi dira be etxera eramateke zerbitzuak, "bertan be jateke aukera izan arren". Jendiak danetarik eskatzen detsela diñue eta plater barrixak egitteke aukeria be eskintzen dabe. Azken aldixan, gaiñera, toki berian 'el auténtico sabor americano' eskintzen dabe, hau da, **EEBB**-etako ohittureri jarraituz, "oillaskua brasen eginda eta hanburgesak, eta halakuekin egindako konbinaziñuak; eta baita ensaladak eta saiheskixa be". Jendiak hala eskatuta jo dabe dibersifikaziñora. Barrena kalia, bestalde, "Kolonbiako sukaldaritza" eskintzen dabe Mendi tabernan, izen exotikuekin.

Izadi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA
SER
104,0 FM

KATU

KALE
TABERNA

BIDEBARRIETA, 1



Sardo Irisarriren KOLABORAZIOA


Teloiairen atzetik

Zaila da egun hauetan edozer gauza komentatzen hasten zarenean gugan eragin zuzena duen krisiari aipamenik egin gabe aurrera jotzea. Kurioso da, baina antzerki munduan urteak dira krisi ospetsua lehen larroan dagoela. Uste dut ordua iritsi dela gure hanka sartzeen arduraz gu geu jabetzeko eta dugun erantzukizuna onartzeko. Baliteke imaginazioa erabili behar izatea ez jarraitzeko beti bizitzen erakunde-amatxoren guardasolaren azpian. Egia da ere zaila dela gaur egun aurrerapen teknologikoen munduarekin eta plasma irudiaren kulturarekin lehiatzea, baina iritsi da unea beharra birtutea bihurtzeko. Kexatzeari laga behar diogu eta justu gure konpetenziak ez duenaz baliatu. Zertaz dihardudan? Antzerkiak eskaintzen duen berehalakotasunaz. Errebindikatu dezagun gure espazioa: JENDEAREN ARTEAN egotea da gure espazio hori, ez besterik. Hori horrela, hobe dugu "artisteoaren" gure oinarritik jaistea eta artisauaren tokia hartzea, sortzailearen leku hori, modu horretan gure tribuna probesteko entzuleari gertuko istorioak kontatzeko. Irribarretik edo negarretik, baina beti ere emozioa erabiliz eta egitak. Hau da, goza dezagun gure lanaz, muga gaitzean horretara. Bakarrik modu horretan lortuko dugu aurrera egitea, bizirautea, inguratzen gaituzten beste langileen kasuan moduan. Hori bai, ez dezagun ahaztu guk gure zereginaz gozatzeko aukera dugula eta gure helburu bakarra dela besteei ere gozaraztea. Gutxi dela? Ez neuke halakorik esango.

ANTZERKIA

"Nick Maritxu Nick Bartolo"

GLUGLU PRODUKZIOAK-EN LAN BERRIAREN IZENBURUA DA HORI ETA JOAN DEN OTSAILAREN 4AN ESTREINATU ZUTEN BERGARAKO ZABALOTEGI ANTZOKIAN. Antzerkiak eta dantzak bat egiten dute antzezlanean. Bi aktore taula gainean eta ezustekoz beteriko komedia. Eromenezko eritmoak munduan eta denboran zehar garraiatuko du ikuslea antzerki-bidaia-komiko honetan: klasikotik futuristara, musikaletik dramara... "Maritxu, nora zoaz" kanta ospetsua abiapuntu, umorezko maitasun eta erotismo istorioa kontatuko digute.




Laurehun lanetik gora Umore Azokarako

EPAIMAHAIK LAN GUZTI HORIEK AZTERTU ETA AURTENGO EDIZIOAN PARTE HARTUKO DUTEN 50 LAN INGURU AUKERATU BEHARKO DITU. Umore Azokan kaleko artistek hartzen dute parte eta aurten, 12. edizioa, maiatzaren 12tik 15era izango da, betiko moduan Leioan. Hiritarrei artea gerturatzea du helburu ekimen honek eta 4 egunetan ilusioak, pasioak, ametsak eta umoreak Leioako kaleak beteko dituzte.

ZINEA

Mario Onaindiari buruzko telesaila

"EL PRECIO DE LA LIBERTAD" IZENENKO TELESAILAK EEKO KIDE IZANDAKOAREN BIZITZA KONTATUKO DU BI KAPITULOTAN. Telesaileko taldeak grabaketan bigarren astean dihardu egunotan Bilbon, eta aurretik, Segovia eta Burgosen ere izan dira, bertako kartzeletan grabatzen. Quim Gutierrez-ek beteko du Onaindiaren papera, eta besteak beste, Andres Herrera, Leyre Berrocal, Mikel Losada eta Xavi Boada aktoreek hartuko dute parte. Datorren udazkenean estreinatuko da ETB eta TVE kateentzako egindako telesaila.



Telmo Esnal-en azkeneko lana

ZARAUZTARRA BURU-BELARRI MURGILDUTA DABIL "URTEBERRI ON AMONA" BERE AZKEN PROIEKTUAN. Hilaren 21ean hasiko dira Asier Altunarekin batera idatzitako "Urteberri on amona" filma grabatzen.



Filmazioarekin hasi baino lehen azken xehetasunak lotzen dihardu Esnalek, besteak beste casting-ak gainbegiratzen eta eskenatokiak zehazten. Bigarren luzemetraia izango da zarauztarrantzako eta bigarren bider egingo du elkarlana Asier Altunarekin, "Aupa Etxebeste" filma arrakastatsua- ren ondotik.

VALERIANO DE LA CALLE, ARRATE txakur erreskate unitatea:

“Beharrerako prest gaude, baina tokiren bat behar dugu”

Arrate txakur-erreskate unitatea sortzeko ahaleginetan dihardute Valeriano de la Calle eibartarrak eta beste hainbat lagunek, horretarako eredutzat UCAS de Galahad txakur-salbamentu unitatea hartuta. Premia izanez gero, andra-gizon eta txakurrez osatutako bolondres talde hau prest dago egoerarik latzenean ere norbait bilatzen jardun eta aurkitzeko. Baina arrastoa nola bilatu eta horrelakoetan jardun ahal izateko beharrezkoak diren beste hamaika trikimailu ikasi eta praktikatzeko tokia behar dute. Eta horretan dihardute, Eibarren behin-betiko egoitza sortu eta elkarte moduan erregistratzeko ahaleginetan.

- Filmeetan askotan ikusten ditugu txakurrak desagertutako lagunen bila, baina pantailatik kanpo, nolakoa da errealitatea?

Berez, horretara ailegatzeko asko praktikatu beharra dago, txakurrak prestaketa konkretua behar izaten du eta hori lantzen jarduten dugu UCAS-ekin, guk Eibarren geure kabuz entrenatzen hasteko tokia lortu bitartean.

- Eta nolako berezitasunak izan behar ditu eskatzen duzuen toki horrek?

Berez edozein tokirekin konformatuko ginateke. Txakurrak egoera guztietara moldatu behar dira, orotariko inguruetara ohitzen joan behar dira eta. Besterik ez dagoenean inguru zabaletan ibiltzen gara entrenatzen, hau da, mendian, baina obra-hondakin eta horrelakoen tartean ere ibiltzen ikasi behar du, hon-

damendiak gertatzen direnean azpian harrapatuta geratzen den jendea lokalizatzen ikasi dezan.

- Aipatzen duzun prestakuntza hori nolakoa izaten da?

Txakurrarentzat, azken batean, jokoa besterik ez da eta, gainera, hala izan behar du. Hilabete edo pare bat hilabete dutenean hasten gara txakurrak prestatzen, jostailuak ezkutuzten dizkiegu eta aurkitzean hori saritzen diegu eta, horrela, txiki-txikitatik hasita jokoan aurrera egiten goaz. Gutariko norbait tokiren batean ezkutuzten da eta txakurra



Oker erreskate lan batean.

bilatzen hasten da. Aurkitzen duenean modu berezi batean egiten du zaunka, bere jabeari bila zebilena aurkitu duela aditzera emateko. Eta horretan ematen ditugu domeka goizak, hori baita beharretik kanpora, libre daukagun denbora.

- Eta nolatan daukazu txakurra salbamentu kontuetarako prestatzeko zaletasun hori?

Beste taldekideen modura, gehienak aurretik bolondres modura ibilitakoak gara modu batean edo bestean. Ni neu DYAn ibilitakoa naiz eta 16 bat urterekin txakurrarekin lehen saiakera ere egin nuen Elorrioko taldearekin, baina oraindik gazteegia nintzela uste dut. Gerora seriotasun handiagoarekin heldu nion gaiari eta Okerrekin egunero ibiltzen naiz, beharretik etorri eta herrian buelta egiten dugu, zuzendu beharrekoak eta bestelakoak lantzen.

- Nolakoa da Oker?

Urtebete eta hilabete bi dauzka eta, arrazari dagokionez, Bor-

der Collie bat da. Une honetan bere ahalmenaren %80an edo ibiliko da, baina orain arteko martxari eutsiz gero, 6 bat hila-betetan %100era ailegatuko da. Oso ona da, mesfidantza piskat dauka, baina duda barik txakurrak gu baino askoz hobeak dira. Gainera, txakur hauek lanerako txakurrak dira, horrelakoetan jarduteko oso egokiak. Etenbariko prestakuntza eskainita eta nor bere txakurra ondo ezagututa, talde-lanean jardutea da kontua.

- Taldea oraindik sortzeaz dagoen arren, maiatzerako jardunaldiak prestatzen diharduzue, ezta?

Bai, gu ere horrelakoetan ibiltzen gara beste toki batzuetako suhiltzaileekin, babes zibileekin... egun osoko probak eta horrelako kontuak lantzeko aprobetxatzen ditugu horrelako jardunaldiak, besteek beharra nola egiten duten ikusi eta ikasteko. Baina lehenengo eta behin Udalarekin hasitako hartu-emanek aurrera egin behar dute, beste guztia jarraian etorriko da, beharrerako prest gaude, baina horretarako elkarteak helbide bat izan behar du, legalki erregistratu eta beharrezkoak ahal izateko.

TEEN-
AJEA

J.B. Gisasola Musika Eskolak, Isabel Laspiur irakasleak lagunduta, bigarren ezarritako du 11. Eibarko Gazteen Piano Jaialdia. Domekan, 12.30etatik aurrera, Eibarko piano ikasleek kontzertua eskainiko dute, hurrengo asteburuan Andoainen izango den lehiaketarako beroketa ariketa modura. Zuretako bik eman digute horren bi.

NEREA GOROSTIZA / NURIA ROBLEÑO:

“Pianoak hasieratik du soinu polita”

- Noiztik diharduzue piano klaseetara joaten?

Sei bat urteren bueltan hasi ginen pianoa ikasten, Musika Eskolan nik (Nuria) eta Nerea, berriz, Isabel Laspiurrekin. 12 urte dauzkagu, aurtan 13 egiteko. Eskolan ere elkarrekin ibili gara ikasten, baina kurtso honetan, Azitaingo La Sallen banatu egin gaituzte eta orain gela ezberdinetan gaude.

- Eta zergatik pianoa eta ez beste instrumenturen bat?

Polita zela iruditzen zitzaigulako. Gainera, ikasten hasi eta ia hasieratik soinu polita ateratzen du, ez zaigu bereziki zaila egiten.

- Lan asko eskatzen dizue?

Egunean ordu erdi edo, biok etxean piano bana daukagu eta, txiki-txikitik lagun minak garenaz, askotan elkarrekin jarduten dugu praktikatzeko, baten zein bestearen etxean.

- Eta ingurukoak ez zaizkizue kezkatzen?

Bat ere ez. Guztiz kontrakoak: egunen batean ez badut praktikatu, bizilagunak zerbait esaten dit ez duelako ezer entzun (Nuria). Eta etxe barrukoak ohituta daude eta gustatu egiten zaie.

- Pianoa edukita eta gustukoa duzuenaz, etorkizunean beste ume batzuei klaseak ematen ikusten duzue zuen burua?

Ez, ez, ez. Guretzat denborapasa, hobbi modukoa da, besterik ez, ez dugu musikara dedikatu nahi.

- Kontzertu honetan ere elkarrekin joko duzue, ezta?

Bai, “Pocahontas” filmeko soinu bandako abesti bat joko dugu pianoan, “Colors of the wind” (A. Menken). Biok ezagutzen genuen abestia eta, gustukoa daukagunez, hori aukeratu genuen. Andoainen ere hori joko dugu, lau eskutara. A, B eta C mailak bereizten dituzte; mailarik errezena A da eta C, berriz, zailena. Guk B mailakoekin joko dugu. Andoainen ere hori joko dugu.

- Lehenago ere Andoainen parte hartzen ibilitakoak zarete eta iaz Coliseoan kontzertua eman zuten. Nolako esperientzia izan zen? Urduri zaudete?

Oso ondo egon zen, etxeok eta lagunak ikusten egon ziren eta, amaitzean, oso polita izan zela esaten ziguten. Hori horrela izanda ere, biak amaitzean lasaiago egongo gara, hori segurua.

aldatze

www.aldatze.org

Ikasketa amaieren proiektuak IES Uni Eibar-Ermuan

Otsailean zehar aurkeztuko dituzte ikasketa amaierako proiektuak IES Uni Eibar-Ermuko Administrazio eta Finantzetako Goi Mailako zikloko hainbat ikasle eta bertan honakoak izango dira: Vanessa Hortas (Debegesako enpresa proiektu berriak), Asier Arana eta Gorka Areitioaurtena (Lan eta Garpenerako agentea Ermuko

Udalean, enpresa proiektuen arloan), Samuel Triguero (Tknika Gestio ikerketa zentzoko berrikuntza arloko koordinatzailea), Susana Pedrera (Tknikan UrratsBat programaren Ekintzailertzako dinamizazio arduraduna), Ruben Pedraza (Ruibal Alquiler de Vehículos enpresako sortzailea), Mertxe Garate (Eibarko zinegotzia eta Industria Batzordeko presiden-



Otsailean aurkeztuko dira IES Uni Eibar-Ermuko Administrazio eta Finantzetako proiektuak.



tea), Unai Diago (EJE eta UrratsBateko arduraduna eta koordinatzailea Deustuko Sailestarretan), Javier León (IES Uni Eibar-Ermua BHI-ko zuzendaria) eta M^a Carmen Treviño (IES Uni-ko administrazio eta Finantzetako arduraduna).

Lanbide Hezkuntzako praktikak atzerrian

Hamabi asterako joango dira atzerrira praktikak egitera IES Uni Eibar-Ermua zentzoko hogeita ikasle. Florencia, Londres, Canterbury, Italia eta Malta izango dira helmugetako batzuk Erdi eta Goi mailako ikasleentzat. 18 eta 20 urte tarteko ikasleak dira eta Lanbide Hezkuntzako praktikak egingo dituzte: hemen egiten diren parekoak, baina atzerrian egitea nahi izan dituztenak. Ikasleak mar-

txoaren 12aren eta 19aren artean joango dira euren destinoetara.

Unik hainbat urte daromatza horrelako aktibitateak egiten: orain dela urte bi, 2009-2010 ikasturtean, 17 izan ziren programan parte hartu zutenak. Iaz, bestalde, Europako Komunitateak diru-laguntzak murriztean eta Erasmus eta Leonardo beketako arrekonturik ez egotean, zazpi izan ziren bakarrik parte hartu zuten ikasleak.



Europako Ingenieritzako gazte onenen bila

Tekniker-IK4-k eta EHUk antolatuta, Prezisioko Ingenieritza eta Nanoteknologiako Europako Elkartek bultzatutako Euspen Nazioarteko Erronkaren II. edizioako Espainiako fasea jokoan da dagoeneko; lehenengo fase horretako irabazleek Erresuma Batuan lehiatuko dute Europako beste irabazlearen aurka.

Ingenieritzako 5. mailakoek, lizentziatuek eta doktoregaiek dute sarietan parte hartzeko aukera, beti ere taldean lan eginez Prezisioko Ingenieritzako lan batean: hor fabrikazio teknologiak, egitu-

ren diseinua, mekatronika, metrologia eta makinaren kalibrazioa sartzen dira.

Izen-ematea otsailaren 28ra arte egin daiteke eta lanak apirilaren amaieran entregatu behar dira, maiatzaren 6an aurkezteko. Kanporaketa horretako hiru lehenak Cambridgeko finalean hartuko dute parte. Iazko edizioan EHUko hiru ikasleak irabazi zuten Euspen Challengeko Espainiako fasea eta eurretako bat Alemaniako Jena hirian jokaturako azken faseko talde irabazlearen partaide izan zen.

Kordobarra naiz

El Potro' Rodrigo 'Cuarteto' musikako izar handia zen. Argentina osoko antzerkiak, Luna Park bezalako eszenatokiak, foball zelaia eta herriko plaza handiak betetzen zituen Kordobako herri-musika horrekin. Esan daiteke 'Cuartetoa' Argentina osora hedatu zutela berak eta **Carlos 'La Mona' Jimenez** bezalako musikariek, eta euren kordobatasuna hedatu zutela ere.

Oso harro zegoen Rodrigo bere jatorriaz eta bere ahoskeraz; izan ere, kordobarren ahoskera nahiko berezia da. Kantatuz egiten dute berba eta tonu ezberdina ematen diote esaldiei. Bitxia da eta kordobarrek zeintzuk diren jakiteko balio izaten du.

Rodrigoren abestietako bizi-pozak, hala ere, amaiera tragikoa izan zuen. Argentinan normala da artista batek gau batean hainbat saio eskaintzea hainbat herritan; beraz, batekik bestera presaka dabilta euren musika eskaintzeko. 2000. urteko ekainaren 24an, ikuskizun batetik **Buenos Airesera** bidean, bizia galdu zuen errepidean bere semearekin eta haren amarekin zihoanean. **Carlos Gardelen** heriotzaren egunean hil zen Rodrigo (65 urte geroago). Kordoban oso gogoan daukate Rodrigo eta gauean bere abestiak entzutea arrunta da 'bolicheetan' (Eibarko hainbat tabernatan entzuten da 'La mano de Dios', Diego Armando Maradonari eskainitako abestia). Horrela, nagusien oroitzapenean badago ere, gazteek mirespenez ikusten dute abeslaria.

Alemaniar kutsuko auzoa.



Che Guevara-ren etxea izandakoa. Alta Gracia.

Izan ere, Kordoban gaztetasuna nagusi da bertan dauden unibertsitateengatik. Adibide bat ipintzearren, **'Kordoba berria'** deiturikoa gazte beteta dago (auzo handia dena). Bertara momentu honetan joanez gero, argi geratuko litzateke 'Kordoba berria' unibertsitarien auzoa dela, hutsik aurkituko lukeelako bisitariak (otsailaren amaieran hasten dira kurtso berriko klaseak).

Uda sasoiaren Kordobako mendilerroko herrirentzat heltzen da protagonismoa. **Villa Car-**

los Paz, Alta Gracia (Ernesto 'Che' Guevarak 17 urte egin zituen bertan txikitan asma arazoak gainditzeko, eta Manuel de Falla musikari espainiarra han bizi eta hil zen), **Villa General Belgrano** (inmigrante alemanez betetako herria -Bavarian zaudela ematen du-) eta **Mina Clavero** bezalako herriek urte osoko lasaitasuna albo batera utzi, eta milaka turista jasotzen dituzte.

Mendi, laku eta kordobarren xarmaz gain, Argentinako vedette eta artisten ikuskizunak dira Villa Carlos Paz bezalako herrien eskaintzak. Abendutik otsailera luma, purpurina eta takoiz betetako karteletz josita azaltzen dira mendilerroko herriak.

Dantzari artean ibili da azken hilabeteotan beste kordobar xelebre bat: **Fabio Eduardo 'La Mole' Moli**. Boxeolaria bera, 'Bailando por un sueño 2010' telebista saioan aritu izan da. Hasieratik amaierara arte publikoaren kuttuna izan da bere naturaltasun, grazia eta ontasunagatik, eta ring gainean ukabilkadak jaso eta ematen zegoenean pentsatuko ez lukeen zerbait lortu zuen: dantza lehiaketa bat irabaztea. Rodrigoren 'Soy cordobés' ('Kordobarra naiz') abesti famatua dantzatu zuen boxeolari ohiak saioan. Dagoen lekuan dagoela, fernet kopa batekin egingo zuen topa 'cuarteto' abeslariak; seguru.





Urbateko igerilariren taldea, azken San Juan Torneoko irudian.

Beste asteburu on bat Urbateko igerilarientzat

BAI ZARAUTZEN, BAI LEGAZPIN, ETA BAITA MADRILEN ERE: herriko igerilariek bikain jardun dute parte hartu duten azken lehiaketetan. Zapatuan, Zarautzeko III. Neguko Parte-hartze torneoan, Nerea Ziaranek bizkar erako 100 metroak irabazi zituen, Unai Azpiazuk tximeleta erako distantzia bereko proba eta Egoitz Blancok braza estiloko hektometroa; Marina Bedia 2.a izan zen 200 metrotako libre eta estilo probetan. Domekan, bestalde, Legaz-

pin jokatuak Kutxa trofeoaren finalean, alebin eta infantil mailetako igerilariek jardun zuten eta infantil mailako errelebo mistoak 3. postua eskuratu zuen, Oarsoalde eta Bidasoaren atzetik.

Bestalde, autonomi komunitateen arteko Espainiako txapelketan, Nora Varela eta Markel Alberdi eibartarrekin parte hartu zuen Euskadi 6. postuan sailkatu zen. Varelak 5. postua eskuratu zuen 100 metroko braza modalitatean.

Teknikari berria Kalamua judo klubean



THIAGO CARVALHO, JIU-JITSU BRASILDARREKO GERRIKO BELTZA 2009tik, klaseak ematen hasiko da Kalamuakoekin aipatutako modalitatean. Bere curriculumean, Brasilgo txapelarekin batera, beste hainbat torneo eta txapelketa daude: Alerj Cup, Pitbull Cup, Macaé Kopa, Rio de Janeiroko nazioartekoa eta azken hiri honetako Litoral Kopa.

Deporreko xakelariak liderrak Gipuzkoako 2. mailan

GROS D TALDEAREN AURKA 1'5-2'5 IRABAZI ETA GERO, GIPUZKOAKO LIGAKO 2. MAILAKO LIDERGOA lortu du Eibarko bigarren taldeak. Julen Garroren eta Mikel Larreategiren garaipenei, Emilio Jose Freiren berdinketa gehitu zitzaizen Donostiatik garaipena ekartzeko. Ez zuten zorte bera izan Euskal Ligako herriko lehenengo taldearen ordezkariak, azken hauek 3'5-0'5 galdu baitzuten Bilboko Conteneo taldearekin. Diego Olmok lortu zuen puntu erdia balio izan zuen berdinketa eta orain taldea 5. postuan dago sailkatuta.

Bihar Deportiboko lokaletan jokatuak dituzte euren partidak talde bietako ordezkariak: Euskal Ligakoek Errenteriako Fomento Cultural hartuko dute eta Gipuzkoako Ligakoek Elgoibar.



Katu-Kale saskibaloia taldeak 3. partidua irabazi du jarraian

EIBARKO TALDEA BERE MULTZOKO GOIKO ALDEAN KOKATU DA azken aldian jokatuak hiru partidua irabazita. Orain arte zera- zera ibilbidea guztiz zuzendu du Katu-Kale azken partiduotan eta, Oiartzungo Saskilagunak taldearen aurka jokatuak norgehiagokan, ondo erakutsi zuten neurrak parekatuak ere euren gaitasuna hartu du-




ten iaiotasuna. Azken bost minutuetan lasai kontrolatu zuten ordu- ra arte lortutako abantaila eta 59-51 irabazi zuten. Arizmendiarrak izan zen saskirantzaille onena, 16 punturekin eta Sergiok eta Alarcónek hama- bina lortu zuten.



JOSE FERNANDEZ ZUBIMENDI
(2011-II-8an hil zen, 92 urterekin)

GURE KIDE ETA BAZKIDE SORTZAILEA
gogoan izango dugu beti.

GURE BASTARRA S.C.R.



Hierros Anetxeko rugbilariak Zarautzengandik bi puntura

BAZTAN-I 29-7 IRABAZI ETA GERO, LORTUTAKO BOST PUNTUEKIN ZARAUZTARRENGANDIK PUNTU BIRA GERATU DIRA Eibar Hierros Anetxe taldekoak. Jardunaldi bi besterik ez dira falta liga amaitzeko eta badirudi Unben jokatu den azken jardunaldiak erabakiko duela multzoko 2. postuan geratuko dena zein izango den: hor Eibarrek eta Zarautzek neurtuko dituzte indarrak eta irabazleak igoerako promozioa jokatzeke aukera izango du. Aurretik, baina, eibartarrak Gasteizera joango dira domekan, han Gastedirekin indarrak neurtzeko.

Eibartarrak erraz nagusitu ziren Unben eta, 20. minuturako, 22-0 zegoen markagailuan. Eibartarren entseguak Igor Martínek, Peru Unamunok, Borja Malabek eta Emanuel Galvánek lortu zituzten, azken honek eskuratuz aldi berean hankaz egindako bederatzita puntuak.



Isasaren mutilek asko dute jokoan domekan Gasteizen.

Gipuzkoako Mendi Federazioak antolatutako eski ikastaroak

GIPUZKOAKO MENDI FEDERAZIOAK ESKI IKASTARO BI ETA ZEHARKALDI BAT ANTOLATU DITU hurrengo asteburueterako; horrela,

otsailaren azken asteburuan (26/27) eta martxoaren lehenengoan (5/6) elur mota guztietako eski tekniken ikastaroak egingo dira. Horrez gain, eski zeharkaldia ere antolatu du GMF-ak martxoaren 19 eta 20ko astebururako: federatuendako prezioa 45 eurokoa izango da eta, martxoaren 9a baino lehenago izena emanda, 40'5ekoa. Informazio gehiagorako: www.gmf-fgm.org



Durango bakarrik lidergoan asteburuko ezustekoen ondoren

ASTEBURU EMANKORRA IZAN DA AZKENA KIROLJOKOA FOBALL ZALETUAREN TORNEOAN: horrela, espero zen Durangoren garaipenarekin batera, inor gutxi pentsatzen zutena gertatu zen Teknografik eta

JoserAuto taldeen porrotekin. Eraitza horiek Durango laga dute bakar-bakarrik lidergoan, Teknografik hiru puntura dago orain eta JoserAuto azken txapelduna sei puntura dago honezkerok.

Bihar eta etzi jokatu beharreko



Gestorako partaideek Arrateren ibilbideko oztopoei egingo diete aurre.

Arrate aurrera ateratzeko konpromisoa hartu du gestora batek

MARTITZEN ARRATSALDEAN AURKEZTU ZEN IPURUA KIROLDEGIAN ESKUBALOI KЛУBAK ZUZENDARITZA BERRIA OSATU ARTE egoera hobetzeko ardura hartu duen gestora. Gestora hori Gojko Vucinic atezain-ohiak eta gaur egungo bigarren entrenatzaileak, Ivan Escribano jokalaria-ohiak eta Jose Ramon Iriarte Debabarrena areto-foballeko taldearen presidentea osatuko dute, gerente ardura hartuko duen Natasha Bergararekin batera. Gestorak orain arte taldeko presidentea

izan den Iñaki Bolinagaren lekuko hartuko du eta, lan horretan, bai Udalaren eta baita Gipuzkoako Diputazioaren laguntza ere izango du. *“Lana, inplikazioa eta konpromisoa”* hartu dute euren gain eta, aldi berean, bideragarritasun planean *“zorra haunditu barik. Dena dela, laguntzera gatoz, ez likidatuzera”*, esan zuten.

Bestalde, Asobal ligako taldeak, Alcobendasi irabazi eta gero, Bartzelonaren aurka jokatu du gaur 18.30etan: puntuatzea ia ezinezkoa izango da.

Urbat'ek Liga Open irabazteko lehian dihardu waterpoloan

INTENTSITATE HANDIKO NEURKETA JOKATU ZUTEN EIBARTARRERK FORTUNA-TXIMISTARRI TALDE INDARTSUEAREN AURKA eta baita irabaztea lortu ere: 13-10. Aurreneko zatiak baliatu zituzten Cerchiren mutilek abantaila lortzeko eta azkeneko bietan, gasolina gutxirekin, lortutako tarteari eusten jardun zuten. Eraitza horrekin, eibartarrak Sestaorengandik puntu bira jarraitzen dute, Open Liga bereganatzeko itxaropenarekin. Basterrika gaztea, Unzueta eta Mitxelena zutabeak eta Mandiola eta Vega goleatzaileak izan ziren taldeko onenak. Bihar Urbat'ekoek Lautadaren aurka jokatu dute Gasteizen.





Gaizka Hernándezek zuzentzen duen taldeak lan gogorra du aurretik.

Ruibalek mailari eusteko itxaropena berreskuratu du

IRUNGO ALDABE AURKARI ZUZENA ZELA APROBETXATUZ, JAUIZ GARRANTZITSUA EMAN DU Ruibal Alquiler de Vehículos saskibaloitza taldeak mailari eusteko borrokan. Atsedendira joan zirenean ere, eibartarrak nagusi ziren (34-24); eta gero, gorabeherak izan arren, ez zuten partiduen norabidea galdu. Azkenean, 69-58ko emaitza etxekoen alde Ipuruan jokaturako norgehiagokan. Sas-kiratzaleei dagokienez, Gergori Prieto izan zen onena, 19 punturekin, eta taldeko beste hamar jokalariek ere lortu zituzten puntuak.

Territorial mailako neskak lidergoan

EIBAR FOBALL TALDEKO PROBINTZIA MAILAKO TALDEAK LIDERGOARI EUSTEN DIO Real Unión bigarren sailkatuari 1-0 irabazita. Garaipen horrekin lehendik zuten abantaila handitzea lortu dute eibartarrak Igoerako Ligan. Nerea Gantxegik buruz lortutako golak erabaki zuen neurketa. Honakoek osatu zuten hamaikakoa: Lara, Laura, Ainhoa, Lorea (Naiara), Gantxegi, Lauri, Nagore, Leire (Maider), Andrea (Ione), Igone eta Alana. Denboraldi bikaina dihardu egiten Superligako taldearen atzetik emakumeen arloko bigarren taldeak.


Urkiko neskak lider amaitu dute lehenengo fasea

HAMAHIRU PARTIDU IRABAZIZ ETA BAKARRA GALDUTA, 97 GOL SARTU ETA 8 JASO ONDOREN, bere multzoko lehenengo postua eskuratu du Urki taldeko nesken hamaikakoak. Azken partiduan ere nagusi izan ziren Alberto Lamarianoren agin-

duetara jokatzen duten neskak eta Arizmendi egurtu zuten (10-1). Taldeko jokalariek guztiek izan zuten jokatzeak aukera eta Laura izan zen goleatzaile nagusia, hiru golekin. Orain bigarren faseari ekin beharko diote, aurkari gogorragoekin.

Eibarrek Miereseko Caudal hartuko du domekan, 17.00etan


AZKEN JARDUNALDIAN MULTZOKO SAILKAPENEN AZKENAREKIN GALDU ETA GERO, Eibar FT-ak beharrezkoa du Miereseko Caudal taldeari irabaztea domeka arratsaldean. Alavés-ek ihes egin die berriro Manix-en mutilei eta, jakinda ligaren amaieran 1. postuan geratzeak duen garrantziaz, beharrezkoa dute garaipena, gasteiztarrei gertutik jarraitzeko. Caudal talde asturiarra 87/88 denboraldian izan zen Ipuruan azken aldiz eta orduko hartan eibartarrak nagusitu ziren: 3-0.



Egaña-Bengoetxea bikoteak irabazten hasi zuen Deba Arroko txapelketa

ASTELENA FRONTOIAN MARTITZENEAN JOKATUTAKO PILOTA PARTIDUAN, Eibarko Klub Deportiboko bikotea Bolinagak eta Lazkaok osatutakoa baino gehiago izan zen, 22-10 nagusituz. Egañak,

atzelaria izanda ere, neurrian eutsi zion Bolinagari eta, atzeko aldean izan zen Bengoetxearen nagusitasunaz baliatuz, erremate politak era eskaini zituen. Arrasatearrek amore eman behar izan zuten.



Deba Arroko torneoak bikotea osatzen duten Egaña eta Bengoetxea Arrateko frontoian, irailean jokatutako euren arteko buruz-burukoan. / MAIALEN BELAUSTEGI

etxolajatetxea@hotmail.com
Erreserbak: 943-207019
Txirio kale, 1

etxola

JATETXEA

Eguneko menua / Karta / Pintxoak
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak

MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

"Ibarra Familiako Zalduna" erretratoaren historiaren inguruan eta margolanaren zaharberritze lanei buruz jardun zuen atzo Martiarenak Armagintzaren Museoak antolatutako ekitaldian. Donostiar honek 30 urte baino gehiago eman ditu artelanak zaharberritzen, eta besteak beste Oñatiko Unibertsitate Zaharreko kaperako erretaularen zaharberritzea koordinatu du.



XABIER MARTIARENA, Artelekuko zaharberritzailea:

"Konpontzeko gauza asko dago, baina diru falta da arazoa"

- Urtebete eman duzu "Ibarra Familiako Zalduna" erretratoa zaharberritzen. Zein zen zaldun hori eta zein eratako lana izan da?

Ibarra familia Eibarko familia boteretsuenetakoa izan zen. Jatorri flandiarreko Felipe Diriksen-ek margotu zuen, 1628. urte inguruan, eta artistak egindako erretratoen artean kontserbatzen den bakarrenetakoa da. Zaharberritze lan handia egin dugu. Oso zikina eta iluna zegoen koardoa; oxidatutako berniza kendu eta alterazioak konpondu dizkiogu.

- Artelanak berritzeko orduan dirua oztupo dela kezatu izan dira zaharberritzaileak.

Zalantza barik. Normalean piezarik gehienak eliza eta instituzioen esku egoten dira. Elizak askotan esaten du dirurik ez duela artelanak konpontzeko, eta krisiak ere kalte handia egin digu. Konpontzeko gauza asko dago, baina diru falta da arazoa.

- Harrizko eta zurezko lanak zaharberritu dituzu. Zein alde dago batetik bestera?

Nahiz eta gauza batzutan antzerakoak izan, oso desberdinak dira. Batean edo bestean erabiltzen diren produktuak oso ezberdinak dira. Eta gero alde handia igartzen da barruan edo kanpoan dauden lanen artean. Normalean, kanpoan dauden artelanak hondatuagoak egoten dira, zikinagoak eta margo gutxirekin. Zurezko erretaula batean, adibidez, egiturak sendotu beharra edo pipiekin arazoak aurkituko ditugu. Harriaren kasuan, aldiz, hezetasunak eragindako arazoak izaten dira ohikoenak.

- Zein osagarri behar ditu zaharberritzaile batek?

Sen ona eta pazientzia. Kontutan izan behar dugu artelana zahartu edo hondatu aurretik zer zegoen. Logika erabiliz pentsatu behar dugu zer gertatu zaion artelan bakoitzari, gero ondo zaharberritu ahal izateko.



Aratosteetarako kartela aukeratu dute

AURTENGO ARATOSTEAK IRAGARRIKO DITUEN KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETAN LEHEN SARIA LUCAS FERNÁNDEZ CALVOren (Talavera de la Reina) "Aratosteak innpulso" lanak eskuratu du. Umeen artean, berriz, 11 eta 14 urte bitarteko mailan Ane Xixi López Zurutuza (11 urte) izan da irabazlea, "Bi buru" kartelarekin eta 10 urtera artekoen mailan, berriz, Miguel Argote Azkuna (10 urte), "Untxi arraroa" lanarekin. Sari banaketa ekitaldia martxoak 5ean, Aratoste domekan egingo dute, 13.30etan Untzaga plazan.

Udalak antolatutako lehiaketara 66 kartel aurkeztu dira, horietatik 20 helduen mailan. Irabazleak aukeratzeko epaimahaia Leire Kareagak, Marina Barrenak, Asier López de Viñasprek eta Jabi Zorrakinek osatu dute.



Eibarko abesbatzek ez diote kalerik egin aurtien ere Santaeskeari. / MAIALEN BELAUSTEGI

Abesbatzetakoak santaeskean

URTEROKO HITZORDUARI KALE EGIN BARIK, ARGAZKIAN AGERI DIREN SOSTOA ABESBATZAKOAK, kide-ohi eta guzti, kalejiran irten ziren aurreko barixakuan, Santa Ageda bezperan, santari koplak eskaini eta, bide batez, diru-eskean. Untzagan ekin zioten ibilbideari eta, jarraian, Urkizura ailegatu arte, herriko erdialdeko kaleetan ibili ziren kantuan, hainbat tokitan geratuta. Horrez gain, Kaleetan Kantuz-ekoak ere santaeskean ibili ziren herriko kaleetan gora eta behera.

Golden Apple Quartet Coliseoan

EDUARDO ERRONDOSORO, LOYOLA GARMENDIA, KIKE OCHOA ETA MANUEL ROMANOK OSATZEN DUTEN

Golden Apple Quartet taldea gaur iluntzean Coliseo antzokian ikusteko aukera izango da, 20.30etatik aurrera. Patxi Barcok zuzenduta, talde ezagunak bere ikuskizunik berriena taularatuko du: "En blanco y negro". Euren estiloari eutsita, antzerkia eta zuzeneko abestiak tartekatzen joango dira lan honetan ere. Kontatuko duten istorioan, galduta egon ondoren ganbaran agertutako



kutxa zaharrak eta bertan gordetako objektuak dira ardatza. Hortik abiatuta hainbat kontu agertuko dira eta denboran atzera bidaiatzeko aukera ere izango du publikoak, Gerra Zibilaren ondoren Amerikako Es-

tatu Batuetara joatea erabaki zuten Goldentarren birraitonen figurei esker. Sarrerak 15 eurotan eros daitezke, ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago zabalduko duten Coliseoko leihatilan.

Otsaila bete-betea Karrikan


GAUR GAUEAN DJ SAIO BERRIA HARTUKO DU KARRIKA TABERNAK, 22.00-ETATIK AURRERA

"Musika baltz gauak" egitasmoa abiaraztearekin batera: musika beltzak eman dituen estilo ezberdinak hartu eta, horiekin gozatzeko aukera zabaldua, Dj saioak eskainiko dituzte, bertako zein gonbidatutako disko jartzaileekin. Lehen saio honetan Dj GECH (Gora Euzkadi CHistulari irratsaio-koa) arduratuko da musikaz eta, arduradunek azaldutakoaren arabera, "aspaldiko ska, reggae, rocksteady eta abarrak landuko ditu". Horrekin batera, Karrikan honezkero ezaguna den Dj Okerreko-k musika estilo horren eguneraketa elektronikoagoak ere landuko ditu, dub-a oinarritzat hartuta (dub elektronikoa, dubstep-a, dubpunk-a...).

Disko aurkezpena eta erakusketa

Eta etzi, domeka arratsaldeetarako eskaintza berreskuratuz, Elgoibarko Andranak taldeak "Poto egin nuenekoa" lehen diskoa aurkeztuko du, 19.00etan hasita. Antolatzaileen berbetan, "pop edo folk kutsua duen musika egiten du boskote honek, klasikoak diren musika tresnez gain folke-

ANDRANAK



an ohikoak diren beste batzuk ere erabilia (mandolina, banjoa, tronpeta, ...). Taldeko kideak aurretik beste talde batzuetan jardundakoak dira (Cafe Teatro, Arima Beltza, Lili Moon...). Eta hilaren 27rako antolatu duten ekitaldiarekin biribilduko dute asteburueterako programazioa: Jose Antonio Muñoz eta Markos Gimeno Vesga ermuar olerkariak "Velada con punkpoetas, entre café y con porretas" ikuskizuna aurkeztzen egongo dira hilaren azken domeka arratsaldean. Bestalde, hilabete osoan Peio Agirre (Berriz) argazkilaria lanak ikusgai izango dira tabernan, "roc-kez eta bizitasunez betetako" erakusketan.

laburrak

SAN ANDRES PARROKIAKO ABESBATZA


65 urtera arteko andragizonei San Andres parrokiako abesbatzarekin bat egiteko gonbitea helarazi nahi zaie. Entseguak martitzenetan, 19.45etatik 21.00etara izaten dira eta, abesbatzakoen berbetan, "animatzen direnak lagunarteko harremanak lantzeko eta parrokia animatzeko abesteko" aukera izango dute. Interesatuak entsegu egunetan San Andres elizatik pasatzea, besterik ez dute egin behar.

LIBURUTEGIKO BLOGAK

Juan San Martin liburutegiak bere blogen helbideak aldatu ditu, Blogger-etik Wordpressera pasaututa. Beraz, orain arteko helbideen ordez, jarraian ematen dugun helbideetan aurkituko dituzue liburutegien blogak: <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/eibar>.

ALDATZEKOEN AFARIA

Otsailaren 26an afaria egingo dute 1969an jaio eta Aldatzen ikasi zutenek. Afaria Etxola jatetxean izango da eta egunean bertan 20.00etan batuko dira, Guridi tabernan.



Ileapaindegi ikastaroa

MARTITZENERA ARTE DAGO

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK ANTOLATUTAKO ILEAPAINDEGI IKASTAROAN izena emateko aukera. Guztira lau saio izango dira: otsailaren 22 eta 24an eta martxoaren 8 eta 10ean, arratsaldeko 18.00etatik 20.00etara,

...eta kitto!-n bertan. Gure ilea nola zaindu, nola orraztu, trikimailuak... ikasteko aukera emango du ikastaroak. Izena emateko deitu...eta kitto!-ra (943200918) edo bertatik pasatu. Ikastaroak 10 euro balio du (Berbalagun eta ...eta kitto!-ko bazkideentzat doan).

“Lapikotxiki”-ren salmenta eta banaketa

AURREKO ASTEAN PORTALEAN AURKEZTUTAKO “LAPIKOTXIKI: KANTUZ KULUNKATZEN” LIBURU-DVDA erosi nahi dutenek, horretarako aukera daukate Aierbe, Iraolagoitia eta Mega liburudendetan edo ...eta kitto! Euskara Elkartearen bertan (Urkizu, 11 solairuarterean). Estibalitz Gonzalezek osatutako eta Udalak lagunduta ...eta kitto! Euskara Elkarreak argitara eman duen kantu bilduma 18 eurotan ipini da salgai. Bestalde, Eibarko Udalak ale bana doan banatuko die ume jaioberria Pegoran erregistratzera doazenei, herriko Hau-

reskoletan dauden umei eta 2 urteko geletako ikasleei (ikastetxean bertan banatuko diete).

Lana jaioberri edo jaiotzear dagoen umeen bat inguruan dutenezat bereziki pentsatutakoa da eta 38 abesti biltzen ditu, partitura eta guzti. “Obabatxua”, “Zer daukazu eskuan”, “Han goixen” eta beste hainbat abesteko aukera izango dute guraso zein hezitzaileek eta, horrekin batera, haurrari zenbakiak edo dantzan egiten erakusten joan. Liburuari laguntzen, gainera, DV-DA grabatu dute eta liburuiko abestiei aho-



tsa ipintzen, besteak beste, Xabier Amuriza, Garazi Barinagarrementeria, Roberto Bergara, Maddi Berriozabal, Estibalitz González, Aitor Gorosabel, Maddi Gorritxategi, Nagore eta Ane Guenetxea, Ruben Guenetxea, Luken eta Alain Martínez, Miren Narbaiza, Asier Serrano, Zalao Urain eta Amaia Zubiria entzuteko aukera dago.

Zapatuetako tailer arrakastatsuak Portalean guraso eta umeen aisialdirako

UDALEKO EUSKERA-KULTURAREN ESKUTIK GARATZEN DIREN ZAPATUETAKO TAILERREK OSO HARRERA ONA izaten dihardutela azaldu zuen M^a Jose Telleria zinegotziak aurreko astean eskaintako prentsaurrekoan. Ikastetxeen laguntzarekin urteko lehen hiruhilabeterako antolatuta dituzten 17 tailerretako eskaintza oso zabal da eta guraso eta umei aisialdian euskeraz berba egiteko aukera paregabea ematen diete, zerbait ikasten duten bitartean, gainera. Martxoaren 26ra arte garatzekoak diren tailerretan 270 bat lagunek hartuko dute parte eta aipatzekoa da sukaldaritza-aren ingurukoak izan duen arrakasta: 192 lagunek (96 bat bikotek) eman dute izena eta bertan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleek hartuko dute parte, gurasoek lagunduta. Horrez gain Kezkak 8-9 urte bi-

tarteko umei ikastaroa emango die eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek hainbat eskulanetan trebatzen joateko aukera izango dute. Bestalde, Ikasten elkarteko Esperientzia Eskolaren eskutik jaiotzen Expegezte proiektuari jarraituta, San Blas opilak nola egiten diren irakasteko tailerra garatu zuten Portaleko sukaldean aurreko za-

patu bietan: egun bakoitzean 20 bat neska-mutil batu ziren, nagusien azalpenak entzun ondoren sanblas goxoak egiteko.



Eriz Magoa Gurasoak Berbetan-en

HAUR HEZKUNTZAKO GURASOEN PRAKTIKATZEKO SORTUTAKO GURASOAK BERBETAN egitasmoaren barruan, Eriz Magoaren ikuskizuna antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarreak datorren otsailaren 27rako, igandea. Portaleko areto nagusian izango da ekitaldia goizeko 11.30etan. **Gurasoak Berbetan-eko partaideen artean banatuko dira soilik sarrerak, eta gainontzekoak ...eta kitto! Euskara Elkarreko bazkideei emango zaizkie, ...eta kitto!-tik pasatzen diren bazkideei (agortu arte).**

Gurasoak Berbetan mintzapraktikako egitasmoa da. Aurten Juan Antonio Mogel ikastola eta San Andres ikastetxeko Haur Hezkuntzako gurasoei zuzenduta dago, baina datorren ikasturtean gainontzeko ikastetxeetara zabaldu nahi da. Guraso euskaldunak guraso ia-euskaldunekin elkartzen dira, astean behin ordubetez, euskara praktikatzeko helburuarekin. Izena emateko deitu ...eta kitto!-ra (943200918).

EUSKARAREN

LEGEZKO ONESPENIK GABE JARRAITUKO DU EUSKARAK FRANTZIAN. Berariazko legerik eta legezko onarpenik gabe jarraituko dute Frantzia hizkuntza gutxituek, euskara barne, otsailaren 2an ez baitzuen aurrera egin Pariseko Asanblea Nazionalen “eskualdeetako hizkuntzak” aintzat hartuko zituen lege proiektuak. Hain zuzen ere, Armand Jung parlamentari sozialistak eraman zuen gaia parlamentura galdera baten bitartez. Ez zihoan bere izenean, Asanblea Nazionalen bertan frantsesa ez beste hizkuntzen inguruko lantaldearenean baizik, 59 parlamentarik sinatutako lege proposamena defendatuz. Eta, gaia parlamentura iritsi den gainerako guztietan bezala, ezezko biribilarekin egin zuen topo. Nahiz eta 2008. urteaz geroztik Frantziako Konstituzioak aipatu hizkuntza gutxitu guztiak direla “Frantziaren ondare”, horrek ez du lege aldetiko batere aldaketarik ekarri, eta frantsesak jarraitzen du Errepublikaren hizkuntza bakarra izaten.


TXOKOA

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, ENEKO Cano Arriola, atzo hamar urte egin zenduaz-en-eta. Jarraitu hain jator izaten. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IRATI, martitzenian bost urte egingo dozuz-eta. Aitxitxa-amama, aitta, ama eta Unairen partez.



Zorionak, MIREN Badiola Albizu, hillaren 9xan urte bi egin zenduaz-en-eta. Famelixa guztiaren partez




Zorionak, MARA, atzo hiru urte egin zenduaz-elako. Etxekuen partez.




Zorionak, San Balentingo maitetxuak! Azkenaldixan maiteño barrixekin gustora, bestietaz ahaztuta zabizie. Muxutsuek!




Zorionak, Mª ANGELES, zure urtebetetzian. Billoba NAIA eta etxekuen partez.



Zorionak, LIBE eta ALEX. Printzesak hiru urte egittiarekin batera, printzeari ongi-etorrixa emon nahi detsagu. Etxekuen partez.




Zorionak, EKAIN, bixar lau urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, ELAIA, zure bigarren urtebetetzian. Muxu haundi bat zure famelixa guztiaren partez.



Zorionak, XABIER, domekan zortzi urte egingo dozuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, XABIER, gaur 11 urte egitten dozuz-elako. Lagunen eta etxekuen partez.



Zorionak, AINHOA, martitzenian 11 urte egingo dozuz-eta. Etxekuen partez.

zinea Coliseoan

11n: 22.30
12an: 17.00/19.45/22.30
13an: 17.00/19.30
14an: 20.30

"Amor y otras drogas"

Zuzendaria: Edward Zwick
Aktoreak: Anne Hathaway, Jake Gyllenhaal, Oliver Platt, Hank Azaria



Jamie elektronika arloko saltzailea enpresatik kaleratuko dute neska erakargarri guztiakin oheratzen delako. Farmazia arloan hasiko da lanean eta, bisita batean, Parkinson gaitza duen Maggie ezagutuko du. Amodioa izango da drogarik onena.

11n: 22.30
12an: 17.00/19.45/22.30
13an: 17.00/19.30
14an: 20.30

"También la lluvia"

Zuzendaria: Iciar Bollain
Aktoreak: Raul Arévalo, Gael Gª Bernal, Luis Tosar, Karra Elejalde



Lagun bi daude Bolivian pelikula bat filmatzen: Sebastian zuzendariak benetan gertatutakoa kontatu nahi du eta Costa produktoreak filma amaitzea besterik ez du nahi. Tarte horretan Uraren Gerra hasten da, herritarren iraultza pizten duena.

"Enredados" 3D

12an eta 13an: 17.00

12an: 19.45/22.30
13an: 19.30
14an: 20.30

"El santuario" 3D

Zuzendaria: Alister Grierson
Pertsonaiak: Ioan Gruffudd, Richard Roxburgh, Alice Parkinson, Rhys Wakefield



Aita-semeak buru dituen urpekoen talde batek txangoa egingo du munduko haitzulo haundi eta eskuraezinera. Ekaitz tropikal baten ondorioz, arrisku multzoaren aurka egin beharko dute, ibildea bilatzeko eta bizia salbatzeko ahaleaginean

HILDAKOAK

- Benito Nogales Quintana. 83 urte. 2011-I-27.
- Asunción Quintas Cid. 91 urte. 2011-I-29.
- Benigno Madueño Molina. 83 urte. 2011-II-2.
- Jeronimo Maguregi Arrieta. 79 urte. 2011-II-6.
- Carmen López Carrete. 89 urte. 2011-II-6.
- Nemesio Rafael Artetxe Iriondo. 90 urte. 2011-II-6.
- Pedro Irigoien Oria. 79 urte. 2011-II-6.
- Jose Fernández Zubimendi. 92 urte. 2011-II-7.
- Isabel Cabanzón San Emeterio. 91 urte. 2011-II-7.
- Marisol Olaizola Altuna. 68 urte. 2011-II-8.
- Elisa Guede Delgado. 85 urte. 2011-II-9.

JAIOTAKOAK

- June Larreategi Uria. 2011-I-28.
- Ekhiotz Sanz López. 2011-II-1.
- Malen Gorriti Moral. 2011-II-2.
- Unai Etxeberria Blázquez. 2011-II-3.
- June Mata Rodríguez. 2011-II-5.

horoskopoa

ARIES

Ahalegindu zaituz eta izan samurragoa. Aldamenekoez eskertuko dute, azkenaldian zakarregia zaudelako, batez ere.

TAURUS

Aspaldiko gorrotoek gaur egungo harremanetan traba egiten dizute eta hori ez da sana. Kontu zaharrak dira; ahaztu egin beharko zenituzke.

GEMINI

Zure atzetik dabilen horren besoetan eroriko zara uste baino lehen. Orain gogor-gogorra zaude, baina azkenean bigunduko zara eta akabo!

CANCER

Datozen egunotan estresa izango duzu etsairik nagusiena. Badakit ez dela erraza une honetan gauzak lasaiago hartzea, baina ahalegindu.

LEO

Lasaaaaiiii! Egunitan dituzun tristura eta nekea laster pasatuko zaizkizu. Arazoa da besteek baino denbora gehiago beharko duzula pasatzeko.

VIRGO

Asteburu bikaina duzu aurretik, lagun. Hainbeste mimoz antolatutako "hori" borobil irteno zaizu. Egon lasai, dena kontrolatuta dago-eta.

LIBRA

Sasoi honetan balantzea egiteko ordua da. Ahaztu onak izan ez diren uneak eta, bestalde, heldu gogor merezi izan duten beste horiei.

SCORPIUS

Hori da, hori, nerbioa! Ezin zara geldirik egon. Danari baietz esan behar hori... Badakizu zer egin: erlaxatu eta zure burua zaindu.

SAGITTARIUS

Non arraio bizi zara? Jaitsi behingoz lurrera, gauza mordoa galtzen ari zara-eta. Extralurtarra dirudizu; itxuraz ere hobetuko bazenu, hobe!

CAPRICORNIUS

Eskaini denbora gehiago aisialdiari. Lanak irentsi egingo zaitu eta hori ez da txantxetako. Badirudi-eta lanerako bakarrik bizi zarela.

AQUARIUS

Agenda topera duzu; baina, benetan uste duzu apuntatuta dituzun gauza guztiek merezi dutela? Egin benetan nahi duzuna, mareatu barik.

PISCIS

Espero duzun oparia jasoko baduzu ere, poztasun handiena aspaldian ikusi ez duzun lagun batek emango dizu. Materialista ez zaren seinale!

Barixakua 11

EIBAR FACTORING 10.00/20.00.- Eibar Factoring beherapenen azoka. Toribio Etxebarria kalean.

MUSIKA 20.30.- "En blanco y negro", Golden Apple Quartet taldearen eskutik. Sarrera: 15 euro. Coliseoan.

DJ SAIOA 22.00.- "Musika baltz gaurak" DJ GECH (Gora Euzkadi Chistulari irratsaiokoa), DJ Okerreko. Karrika tabernan.

MUSIKA SAIOA 22.00.- "Bailemos en memoria de..." musika saioa. Bost tabernan.

KONTZERTUA 22.30.- Garden (musika esperimental) eta Asmo Txarrak (rocka) Ondarruko taldeen kontzertua. Elgetako gaztetxean.

Zapatua 12

EIBAR FACTORING 10.00/20.00.- Eibar Factoring beherapenen azoka. Toribio Etxebarria kalean.

MANIFESTAZIOA 15.30.- "Sasi guztien gainetik, euskaldun eta burujabe" lelopean EHE-k Donostian deitutako manifestaziorako autobusa. Ego Gainetik.

Domeka 13

KALEJIRA 11.00.- Usartza Txistulari Bandaren kalejira. Txirio Kale-n hasita.

KONTZERTUA 12.30.- II. Eibarko Gazteen Piano Jaialdia. Sarrera: euro bi. Coliseoan.

KONTZERTUA 19.00.- Andran taldearen emanaldia, "Poto egin nuenekoa" diskoaren aurkezpena. Karrika tabernan.

Martitzena 15

IKASTEN 10.00.- "Recuperación de la memoria histórica", Francisco Etxeberriaren eskutik. Armeria Eskolan.

ENTSEGUA 19.45.- San Andres parrokiako abesbatzaren entsegua. S. Andres elizan.

Eguaztena 16


IKASTEN 11.00.- Kafe-tertulia: "Integrismo religioso". Deportibo tabernan.

Eguena 17

IKASTEN 10.00.- "Filosofía, ¿para qué?. El viaje hacia nosotros mismos", Marisa Iglesias-en eskutik. Armeria Eskolan.

EGO-IBAR ZINE KLUBA 17.30 eta 21.00.- "La verdad de Soraya M." (Zuz: Cyrus Nowrasteh). Sarrera: euro bi. Hezkuntza Esparruan.

salgai



ANTZERKIA: "Ogro txikia" (Gorakada). Otsailak 19, 17.00etan.

MUSIKA: Golden Apple Quartet. Otsailak 11, 20.30. II. Eibarko Gazteen Piano Jaialdia. Otsailak 13, 12.30. Voces y Cuerdas. Otsailak 26, 19.00.

SUDOKUA

		1	9					
	9			2	8			1
	8	2		7			5	4
1	7		3					
				5		9	2	
8	2			6		1	7	
6		7	2				8	
					8	5		

DENBORAPASAK

3	7	9	2	6	8	5	4	1
5	1	8	9	4	7	8	2	3
2	4	8	3	1	5	9	6	7
4	6	2	1	3	6	7	8	9
9	3	1	7	8	2	6	5	4
8	6	7	4	5	9	3	1	2
1	9	5	8	7	4	2	3	8
6	2	3	8	9	1	4	7	5
7	8	4	5	2	3	1	9	6

AURREKOAREN EMATZA



erakusketak

– Otsailaren 13ra arte
“MY WAY, NO WAY, ANYWAY” Ismael Iglesias-en irudi erakusketa. *Portalean.*

– Otsailaren 28ra arte

PEIO AGIRRE-en argazki erakusketa. *Karrika tabernan.*

ALEJANDRO MARTÍNEZ ACIN-en argazki erakusketa. *Depor tabernan.*

JOSE LUIS IRIGOIEN-en “India” argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

RAFA HERRERO-ren “Paisajes mínimos” argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*

FERNANDO BEORLEGI-ren “Gogoaren pintzelkada garratzak” erakusketa. Lizarrako Gustavo de Maeztu museoa (martitzenetik zapatuta 11.00-13.00 eta 17.00-19.00; jai-egunetan, 11.00-19.00).



lehiaketak

– **Esaera zaharren lehiaketa.**
 Lanak entregatzea eta informazioa: *Otsailaren 11ra arte*, AEK Euskaltegian (eibar@aek.org) edo Udal Euskaltegian (euskaltegiaeibar@telefonica.net)

– **Industriagintza V. Argazki lehiaketa.**
 Informazioa eta lanak entregatzea: *Otsailaren 25era arte*, Armeria Eskolako Ikasle Ohien Elkartearen.

– **XIV. Eguen Zuri Argazki lehiaketa.**
 Aratosteekin lotutako argazki-lehiaketa. Lanak entregatzea eta informazioa: *Apirilaren 5era arte*, arrate.kultu@eibar.org edo 943202299 zenbakia.

– **Ixuako Pasua - Valenciaga Memoriala.**
 Apirilaren 3ko txirindularitza lasterketako argazki lehiaketa. Lanak entregatzea eta informazioa: *Maiatzaren 6ra arte*, Eibarko Txirindularien Elkartearen (Pagaegi, 3 / ccc@clubciclistaeibarres.org).

farmaziak

11, barixakua
 EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberría, 7)
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

12, zapatua
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

13, domeka
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

14, astelehena
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

15, martitzena
 EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)
 GAUEZ **Las Heras** (Sostotarren, 10)

16, eguaztena
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
 GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

17, eguena
 EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
 GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

18, barixakua
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
 GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

ikastaroak

– **Tai Chi Chi Kung (arnasketa eta kontzentrazioa lantzen).**
 Non eta noiz: *Otsailaren 18tik urriaren 28ra arte*, barixakuetan 16.30etatik 18.00etara (36 ordu) Ugan Klubean. Informazioa: toki guztiak bete arte, www.kutxasocial.net helbidean edo 902540040 telefonoan (astelehenetik barixakura, 08.00etatik 14.30etara).

– **Ileapaindegi ikastaroa.**
 Noiz eta non: *Otsailak 22 eta 24 eta martxoak 8 eta 10*, 19.00etan ...eta kitto!-n (Urkizu, 11). Izen-ematea: Otsailaren 3tik 15era, ...eta kitto!-n (943200918). 10 euro (...eta kitto!-ko bazkide eta mintzalagunentzat doan).

– **Haurren garapena.**
 Norentzat: 2-7 urte bitarteko seme-alaben gurasoentzat. Non eta noiz: *Otsailak 22, 24 eta martxoak 1 eta 3*, 18.00etatik 20.00etara, Portalean. Informazioa eta izen-ematea: Pegoran, otsailaren 4tik 16ra.

telefono jakingarriak

SOS deiak112
 Pegora010
 Udaletxea943 70 84 00
 Portalea943 70 84 39
 Udaltzaingoa.....943 20 15 25
 Mankomunitatea943 70 07 99
 Debegesa.....943 82 01 10
 KIUB943 20 38 43
 Epaitegia943 03 34 00
 Iberdrola901 20 20 20
 Naturgas902 12 34 56
 DYA Larrialdiak.943 46 46 22
 Gurutze Gorria..943 22 22 22
 Mendaro osp.....943 03 28 00
 Anbulategia.....943 03 25 00
 Torrekuia.....943 03 26 50
 Errepideak.....902 11 20 88
 Ertzaintza943 53 17 00
 Eusko Tren902 54 32 10
 Pesa902 10 12 10
 Taxiak.....943 20 30 71
943 20 13 25
 Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
 Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DO-NOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Laneguna: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara orduro eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Urkizun. 3 logela, sukaldea eta komuna. Igoailua. Bizitzera sartzeko moduan. 205.000 euro. Tel. 649-441825.
- Pisua salgai Juan Gisasola 5ean (4. A). Sukaldea, hiru gela, egongela, komuna eta despentsa. Igoailua eta fatxada berriztuak. Tel. 605-838562.
- Legarren pisua salgai. 70 m². Terraza handia (hego alderantz). Oso argitsua. 232.000 euro. Tel. 605-730131.

1.2. Errentan

- Etxea alokagai Unibertsitate Laboralaren parean. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Tel. 660-378181.
- Logela alokagai Saratsuegi kalean. Tel. 650-917491.
- Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 693-950032.
- Pisua hartuko genuke alokairuan Eibarren. Tel. 678-097247.
- Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Txikia, lagun batentzako. Tel. 609-918803.

3. Lokalak

2.1. Salgai

- Txomon garaje itxia salgai. 36.000 euro. Tel. 644-403759.

3.2. Errentan

- Lokal komertziala alokagai Sostotarren 17an. 18 m². Tel. 669-276773.
- San Andres pasealekuan garajea alokagai. 7 m²ko trasteroarekin. Tel. 943-120308.
- Lokala alokagai Eibarko erdialdean. 70 m². Komuna eta barrarekin. 18 urtetik gorako gazteentzat modukoa. Tel. 679-425467.
- Lokala alokagai Amañan. 180 m². Argitsua eta ibilgailuentzat sarrerara onarekin. Tel. 605-771570.
- Lokala alokagai Ibarkurutze 4an, iturriaren parean. 200 m². Tel. 609-918803.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 636-383471.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo paseatzeko. Tel. 628-014327.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Mutila eskaintzen da garraiolari edo gidari jarduteko. Karnet guztiak, baita motorrena ere. Tel. 674-849146.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 608-886701.
- Mutila eskaintzen da furgoneta-ekin banatzaile jarduteko eta enpresak garbitzeko. Tel. 650-513412.
- Emakumea eskaintzen da asteburu eta jaiegunetan lan egiteko (sukaldari laguntzaile jardun, umeak zaindu) 15.30etatik aurrera. Tel. 616-397348.
- Emakumea eskaintzen da asteburu eta jaiegunetan lan egiteko (sukaldari laguntzaile jardun, umeak zaindu) 16.00etatik aurrera. Tel. 638-233739.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta etxea garbitzeko. Tel. 619-507664.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 678-972690.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Mendaroko ospitalean edo etxeetan. Tel. 638-249775.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (Mendaron) eta garbiketa lanetarako. Tel. 608-147559.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko Mendaron. Tel. 688-884746.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 673-919233.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez eta asteburuetan nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 676-035738.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan edo gaez nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 666-771151.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- siak zaintzeko. Esperientziarekin. Interna edo externa. Tel. 634-007292.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari laguntzaile jarduteko. Tel. 610-188644.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pintore laguntzaile jarduteko. Tel. 627-159645.
- Mutila eskaintzen da sukaldari laguntzaile edo kamarero jarduteko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 696-450343.
- Mutila eskaintzen da sukaldari laguntzaile edo kamarero jarduteko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 649-086057.
- Mutila eskaintzen da sukaldari laguntzaile edo kamarero jarduteko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 648-716291.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Interna eta orduka. Tel. 617-981037.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 608-820954.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Interna edo orduka. Tel. 630-365137.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 671-343612 eta 943-531931.
- Mutila eskaintzen da txofer edo igeltsero-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 671-343612 eta 943-531931.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria ikasketekin. Tel. 662-638500.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 610-545505.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka. Tel. 697-735046.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta tabernak edo soziedadek garbitzeko. Tel. 638-731827.

4.2. Eskaintzak

- Ilea zaintzailea (1^oko ofiziala) behar da Eibarko ileapaindegi batean. Esperientziarekin. Tel. 943-254512.
- Kamarera behar da autoarekin. Extra moduan. Tel. 677-638184.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Ingeleseko irakaslea eskaintzen da umeei irakasteko. Tel. 645-488483.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Ohea (1'50ekoa, oheburukoa eta somierrarekin), gau-mahai bi eta egongelarako marketeria-mahaia salgai. Lau aulki tapizatu opari. Tel. 670-593605.
- Jaunartzeko jantzia (marineroa) salgai. 14 tallakoa. Behin erabilia. Merkea. Tel. 630-686469.
- Bizikleta estatikoa salgai. Oso berria. Tel. 670-793312 eta 943-127161.
- Bizikleta bi salgai. 6-12 urte bitarteko umeentzat. 100 euro biak. Deitu 21.00etatik aurrera. Tel. 943-204238.
- Fagor labea salgai. 595x592x529 mm. Tel. 669-245653.
- Autoarendako segurtasun aulkia (9-25 kilo) eta egurrezko trona salgai. Merkea. Tel. 617-256466.

6.2. Eman

- Hilabete biko txakurkumeak oparitzen ditut. Tel. 678-323837.
- Maxi Coxi kotxe-kapota, aulkia eta sehaska emango nituzke. Deitu 19.00etatik aurrera. Tel. 635-729625.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Ezkontz-eratzuna galdu zen hilaren 20an Mendaroko ospitalean. Sarituko da. Tel. 646-805546.
- Andrazkoaren artilezko eskularru beltzak aurkitu ziren Barakaldo kalean hilaren 23an. Tel. 675-712886.

6.4. Bestelakoak

- Eibarko lagun bik lagunak nahi dituzte irteazko. Tel. 669-911573 eta 658-732727.

Diproca ATEAK


bizilekuetan adituak

6 ATE:
2 BEIRADUN
4 ITSU

- MARKO berria
- Kromozko ERROSETAK
- Matelux KRISTALAK
- ESKULANA

**12 HILABETETAN ORDAINTZEKO
AUKERA INTERESIK GABE**

Tfnoa. **943 10 83 00** Faxa. **943 10 83 02**



Etxe erreformatan
30 urtetik gorako
esperientzia.

Ateak, armairuak,
oholtzak, leihoak, etb...

Isasi, 17 - behea
EIBAR

ESKAINTZA BEREZIA

Haritza 6300 Modeloa
4500 Zuri lakatua



B.E.Z. BARNE

~~LEHEN 2.544€~~

ORAIN 2.250€

ONDO ENTZUTEA GOZAMENA DA

Zatoz entzuteko modu naturalena ezagutzera:
belarri bi izanda, zergatik bakarra erabili?

ENTZUMEN-ZERBITZU BERRIA EZAGUTZERA ETORRI

Errebal, 14 20600 **Eibar**
GIPUZKOA 943 202 137
plazaola@naturaloptics.com



naturalaudio.net

> **klinika kortazar**

Gidabaimenak eta armabaimenak

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak




T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK